

LURRALDEKO BATZORDEAK 2020KO IRAILAREN 22AN EGINDAKO BILKURAREN AKTA	INFORMAZIO	ACTA DE LA COMISIÓN INFORMATIVA DE TERRITORIO CELEBRADA EL DÍA VEINTIDOS DE SEPTIEMBRE DE 2020
BILDUTAKOAK:		SEÑORES ASISTENTES:
PRESIDENTEA:		PRESIDENTE:

JANIRE OCIO CELADA andrea

BATZARKIDEAK:	V O C A L E S:
----------------------	-----------------------

JOSEBA ARREGI MARTÍNEZ jauna
ALVARO GONZÁLEZ PÉREZ jauna
IRANTZU URIARTE GÓMEZ andrea
IÑIGO URKITZA YAÑEZ jauna
EDUARDO ANDRADE AURRECOECHEA jauna
NATALIA ARANDUY ZUAZAGOITIA andrea
IBON RODRIGUEZ LARRINAGA jauna (NEREA GUIJARRUBIA GARCIA
andreaaren ordeztu)

ITXASO MASEDA SARATXO andrea
GONZALO AYO JIMENÉZ jauna
CAROLINA URIBE DE LA ESPRIELLA andrea

IDAZKARIA:	SECRETARIA:
-------------------	--------------------

ISABEL PERAL AGUIRREGOITIA andrea

Getxoko Udalaren Udaletxeko Bilkura
Aretoa, 2020ko irailaren 22an.

Egun horretako 8:30etan, Lurraldeko
Informazio Batzordea elkartu zen;
idazpuruan zerrendatutako pertsonak
bertaratu ziren, aurretik egindako
deialdiko gai-zerrendan jasotako gaiak
buruz hitz egiteko.

Bileraren emaitza honako hau izan
zen:

**1.- 2020.07.23AN EGINDAKO
BILERAREN AKTA ONESTEA**

En el Salón de Plenos del
Ayuntamiento de Getxo, a veintidos
de Septiembre de 2020.

Se reunió, a las ocho horas y treinta
minutos de este día, la Comisión
Informativa de Territorio, con
asistencia de las personas
relacionadas al encabezamiento, para
tratar los asuntos incluidos en el
Orden del Día de la previa
convocatoria.

Este fue el resultado:

**1.- APROBACIÓN, SI PROCEDE,
DEL ACTA CORRESPONDIENTE A
LA SESIÓN CELEBRADA EL
23.07.2020.**

Aldaketarik gabe onartu zen 2020.07.23ko bilkurari dagokion akta.

Fue aprobada sin modificaciones el acta correspondiente a la sesión de 23.07.2020.

**2.- UDALAREN ONDASUN ETA
ESKUBIDEEN 2019KO
ABENDUAREN 31KO
INBENTARIOAREN ZUZENKETA
ONESTEIA.**

**2.- APROBACIÓN DE LA
RECTIFICACIÓN DEL
INVENTARIO MUNICIPAL DE
BIENES Y DERECHOS A FECHA
31.12.2019.**

Ondasun eta eskubideen udal-inbentarioan aldaketak izan dira, beraz, udal-ondarearen barruan dauden ondasun eta eskubide guztiak zehatzago identifikatu behar dira, baita ondasunen kalifikazioak Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean xedatutakora moldatu ere.

Vistas la variaciones producidas en el Inventario Municipal de Bienes y Derechos, la necesidad de identificar de forma más concreta todos y cada uno de los bienes y derechos integrantes del Patrimonio municipal, así como la adecuación de las calificaciones de bienes a lo dispuesto en el Plan General de ordenación urbana; y,

GERTAERA: 2019ko apirilaren 30eko 74. Udalbatzaren erabakiz Getxoko udal-inbentarioa 2018eko abenduaren 31ra erregularizatzea erabaki zen.

RESULTANDO: Que, por medio de Acuerdo Plenario nº 74 de fecha 30 de abril de 2019 se aprobó la regularización del Inventario Municipal del Ayuntamiento de Getxo a fecha 31 de diciembre de 2018; y,

GERTAERA: 2019. ekitaldian zehar hainbat jarduketa egin dira eta, udal-titulartasuneko ondasunen eta eskubideen aldaketa izateagatik, halabeharrez udal-inbentarioan islatu behar dira.

RESULTANDO: Que, a lo largo del ejercicio 2019 se han producido una serie de actuaciones que por suponer variación de los bienes y derechos de titularidad municipal han de ser necesariamente reflejadas en el Inventario Municipal; y,

GERTAERA: Egiaztapen egokia gauzatu ostean, 2019ko abenduaren 31n ondasunen udal-inbentarioak honako konposizio hau du:

RESULTANDO: Que, una vez realizada la comprobación pertinente el inventario municipal de bienes a fecha 31 de diciembre de 2019 aparece con la siguiente composición:

EPIGRAFEA / EPÍGRAFE		ONDASUNEN KOPURUA / NÚMERO DE BIENES	BALIOA / VALOR
1º	Higiezinak / Inmuebles(*)	412	256.668.445,29
	Azpiegitura publikoak / Infraestructuras Públicas(*)	2.182	79.193.350,05
2º	Eskubide errealak / Derechos Reales	39	80.268,08
3º	Altzari historikoak - artistikoak / Muebles histórico - artísticos	78	2.099.995,80
4º	Balio higigarriak / Valores mobiliarios	3	670.868,22
	Kredituak eta Eskubideak / Créditos y Derechos	204	5.205.475,09
5º	Ibilgailuak / Vehículos	57	1.093.445,44
6º	Aziendak / Semovientes	2022	0,00
7º	Altzariak eta tresnak / Mobiliario y enseres	11.858	3.599.195,59
8º	Horma-hilobiak / Nichos	5.739	0,00
	Eskubide errebertigarriak / Derechos revertibles(*)	828	0,00
TOTAL		23.422	348.611.043,56

*** Udalaren lurzoru-ondarearen barruan dauden ondasunak sartu dira**

*** Incluye los bienes de PMS**

**** Eguneratu gabeko balioak**

****Valores no actualizados**

GERTAERA: Udal-inbentarioan inbentaria ezin daitezkeen eraikinak eta bideak sartu dira. Udalaren titulartasunekoak ez izan arren, berak erabiltzen dituen, udal-altzariak dituzte.

GERTAERA: Era berean, lurzoruaren udal-ondarearen barruan dauden ondasunak sartu dira.

GERTAERA: Balioztapenei dagokienez, berreskuratutako datuak eroste-, kontratazio-espedituetan eta abarretan agertzen direnak dira. Hala, datuak ez dira eguneratu eta udal-inbentarioaren ondorengo eguneratzeetan egin beharko da lan hori.

OINARRIA: Tokiko erakundearen ondarea bereak diren ondasunek,

RESULTANDO: Que, han sido integrados en el Inventario Municipal los edificios y viales no inventariables que si bien no son titularidad del Ayuntamiento por ser utilizados por éste contienen mobiliario municipal; y,

RESULTANDO: Que, igualmente se han recogido los bienes integrantes del Patrimonio Municipal del Suelo; y,

RESULTANDO: Que, los datos recuperados en cuanto a valoraciones son los obrantes en los correspondientes expedientes de adquisición, contratación, etc., datos que no han sido actualizados, y deberán ser puestos al día en posteriores actualizaciones del Inventario Municipal; y,

CONSIDERANDO: Que, el patrimonio de las Entidades Locales

eskubideek eta ekintzek osatzen dute.

OINARRIA: Tokiko araubidearen arloan indarreko legezko xedapenen testu bateratua onartzen duen 781/1986 Errege Dekretu Legegileak 86. artikuluan xedatutakoaren arabera, tokiko erakundeek bereak diren ondasun eta eskubide guztien inbentario balioetsia egin beharko dute eta kopia bat estatuko eta autonomia erkidegoko administrazioei (EAEren kasuan, Bizkaiko Foru Aldundiari) bidaliko zaie. Nolanahi ere, urtero zuzenduko da eta berritzen den bakoitzean Udalbatzak egiaztatuko du.

OINARRIA: Era berean, Administrazio Publikoen Ondareari buruzko 33/2003 Legeak 32. artikuluan xedatutakoari jarraiki, administrazio publikoek beren ondarea osatzen duten ondasunak eta eskubideak inbentariatu behar dituzte eta identifikatzeko nahikoa xehetasunez idatziz jasoak utziko dituzte beharrezko aipamenak. Gauza bera egingo dute egoera juridikoa eta jomuga edo erabilera islatzeko ezinbestekoak direnekin.

OINARRIA: Arestian aipatu den 32. artikulua 4. idatz-zatian xedatutakoarekin bat, autonomia erkidegoen, tokiko erakundeen eta zuzenbide publikoko erakundeen ondare-inbentarioak, horien mendekoak edo horiei lotutakoak, gutxienez beraien gaineko eskubide errealak eta ondasun higiezinak sartuko ditu.

OINARRIA: Bestetik, ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuaren bitartez onartutako Tokiko Erakundeen Ondasunei buruzko Araudiak III. kapituluko (ondasunak kontserbatu eta zaintzea) 1. atalean

está constituido por el conjunto de bienes, derechos y acciones que les pertenezcan; y,

CONSIDERANDO: Que, el artículo 86 del RD Legislativo 781/1986, por el que se aprueba el Texto Refundido de las disposiciones legales vigentes en materia de Régimen Local dispone que las Entidades Locales estarán obligadas a formar inventario valorado de todos los bienes y derechos que les pertenecen, del que se remitirá copia a las Administraciones del Estado y de la Comunidad Autónoma (en el caso de la C.A.V. a la Diputación Foral de Bizkaia) y que se rectificará anualmente, comprobándose siempre que se renueve la Corporación; y,

CONSIDERANDO: Que, asimismo la Ley 33/2003 reguladora del Patrimonio de las Administraciones Públicas en su artículo 32 determina que las Administraciones públicas están obligadas a inventariar los bienes y derechos que integran su patrimonio, haciendo constar, con el suficiente detalle, las menciones necesarias para su identificación y las que resulte precisas para reflejar su situación jurídica y el destino o uso a que están siendo dedicados; y,

CONSIDERANDO: Que, el artículo 32 anteriormente citado en su apartado 4º establece que el inventario patrimonial de las comunidades autónomas, entidades locales y entidades de Derecho público, vinculadas o dependientes de ellas incluirá, al menos, los bienes inmuebles y los derechos reales sobre los mismos; y,

CONSIDERANDO: Que, por otro lado, el Reglamento de Bienes de las Entidades Locales aprobado por RD 1372/1986, de 13 de junio regula en su Capítulo III (Conservación y tutela de bienes), Sección 1ª del inventario

(17. kapitulutik 36. kapitulura, biak barne) ondasunen inbentarioa eta erregistroa arautzen ditu.

OINARRIA: Inbentarioan, izaeraren arabera, bereizita, aipatuko dira honako epigrafeen babesean multzokatuta honakoak: 1. Higiezinak, 2. Eskubide errealak, 3. Higigarri historiko, artistiko edo balio ekonomiko handikoak, 4. Balio higigarriak, kredituak eta eskubideak, Korporazioaren izaera pertsonalekoak, 5. Ibilgailuak, 6. Aziendak, 7. Aurreko enuntziatuetan jaso gabeko higigarriak, 8. Ondasun eta eskubide errebertigarriak.

OINARRIA: Tokiko Udalbatza jada eraturako inbentarioa onartu, zuzendu eta egiaztatzeko organo eskuduna da.

IKUSITA: 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Tokiko Araubidearen Oinarriei buruzkoa; tokiko araubidearen arloan indarreko legezko xedapenen testu bateratua onartzen duen 781/1986 Errege Dekretu Legegilearen 86. artikulua; ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuaren bidez onartu den Tokiko Erakundeen Ondasunei buruzko Araudiaren 17tik 36. artikulura; administrazio publikoaren ondareari buruzko 33/2003 Legearen 32. artikulua; eta bat datorren gainerako legeria.

Lurraldeko Informazio Batzordeak aldeko zazpi botorekin (PNV-EAJ, PSE-EE eta ELKARREKIN-PODEMOS) eta lau abstentziorekin (PP eta EH-BILDU) hala eskaturik, proposamen hau aurkezten zaio Udalari:

y registro de los bienes (artículos 17 a 36 ambos inclusive); y,

CONSIDERANDO: Que, en el inventario se reseñarán, por separado, según su naturaleza, agrupándolos a tenor de los siguientes epígrafes: 1º Inmuebles, 2º Derechos reales, 3º Muebles de carácter histórico, artístico o de considerable valor económico, 4º Valores mobiliarios, créditos y derechos, de carácter personal de la Corporación, 5º Vehículos, 6º Semovientes, 7º Muebles no comprendidos en los anteriores enunciados y 8º Bienes y derechos revertibles; y,

CONSIDERANDO: Que, el Pleno de la Corporación local es el órgano competente para acordar la aprobación del inventario ya formado, su rectificación y comprobación; y,

VISTOS: Ley 7/1985, de 2 de abril, de Bases de Régimen Local, artículo 86 del RD Legislativo 781/1986, por el que se aprueba el Texto Refundido de las disposiciones legales vigentes en materia de Régimen Local, artículos 17 a 36 del Reglamento de Bienes de las Entidades Locales aprobado por RD 1372/1986, de 13 de junio; artículo 32 de la Ley 33/2003 reguladora del Patrimonio de las Administraciones Públicas y demás legislación concordante; y,

A instancia de la Comisión Informativa de Territorio, y con siete votos favorables (PNV-EAJ, PSE-EE y ELKARREKIN-PODEMOS) y cuatro abstenciones y PP EH-BILDU), se eleva a consideración del Ayuntamiento Pleno la siguiente:

ERABAKI PROPOSAMENA:

LEHENENGOA.- Getxoko Udalaren 2019ko abenduaren 31ko udal-inbentarioa onestea, erantsitako CDan azaltzen diren baldintzetan. Hona hemen inbentarioaren laburpen-koadroa:

PROPUESTA DE ACUERDO:

PRIMERO.- Aprobar Inventario Municipal del Ayuntamiento de Getxo a fecha 31 de diciembre de 2019 en los términos expresados en el CD anexo y cuyo cuadro resumen es el siguiente:

EPIGRAFEA / EPÍGRAFE		ONDASUNEN KOPURUA / NÚMERO DE BIENES	BALIOA / VALOR
1º	Higiezinak / Inmuebles(*)	412	256.668.445,29
	Azpiegitura publikoak / Infraestructuras Públicas(*)	2.182	79.193.350,05
2º	Eskubide errealak / Derechos Reales	39	80.268,08
3º	Altzari historikoak - artistikoak / Muebles histórico - artísticos	78	2.099.995,80
4º	Balio higigarriak / Valores mobiliarios	3	670.868,22
	Kredituak eta Eskubideak / Créditos y Derechos	204	5.205.475,09
5º	Ibilgailuak / Vehículos	57	1.093.445,44
6º	Aziendak / Semovientes	2022	0,00
7º	Altzariak eta tresnak / Mobiliario y enseres	11.858	3.599.195,59
8º	Horma-hilobiak / Nichos	5.739	0,00
	Eskubide errebertigarriak / Derechos revertibles(*)	828	0,00
TOTAL		23.422	348.611.043,56

* **Udalaren lurzoru-ondarearen barruan dauden ondasunak sartu dira**

* **Incluye los bienes de PMS**

** **Eguneratu gabeko balioak**

** **Valores no actualizados**

BIGARRENA.- Estatuko administrazioei eta Bizkaiko Foru Aldundiari erabaki honen eta onetsi den inbentarioaren berri ematea.

HIRUGARRENA.- Alkatetz-udalburutzari ahalmena ematea erabaki hau betetzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

SEGUNDO.- Dar traslado del presente acuerdo así como del Inventario que se aprueba a la Administraciones del Estado y a la Diputación Foral de Bizkaia.

TERCERO.- Facultar a la Alcaldía-Presidencia para dictar cuantas disposiciones sean precisas en orden a la ejecución del presente acuerdo.

3.- ARLOKO HAINBAT GAIRI BURUZKO INFORMAZIO OROKORRA.

Iñigo Urkitzak, Plangintza, Kudeaketa eta Hirigintza Diziplinako arduradunak, koronabirusaren garaian ostalaritza-jarduerari laguntzeko hartu diren neurriak azaldu nahi ditu.

Hala, 3. eta 4. taldeen baitan ostalaritza-jarduera gauzatzen duten lokalek, dagozkien baldintzak betez, 2. taldeko jarduera gisa jardun ahal izateko eman den aukeraren berri eman du.

Aldi berean, terrazen arloa malgutu izanaren berri eman du, espaloien konfigurazio zehatzaren ondorioz terrazak jartzea eragotzita zituzten lokalei horiek jartzea ahalbidetzeko, horretarako, aparkalekuetara zuzendutako espazioetan terrazak jartzea ahalbidetuz, 2021eko abendura arte.

4.- GALDERAK ETA ESKAERAK

Popular Udal Taldearen 21.975/2020 idazkia; beraren bidez, Ertzaintzaren komisariaren ehun urtetik gorako bi palmondo mozteari buruz galdetu dute.

Iñigo Urkitzak azalpenak eman ditu, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak Getxoko ertzain-etxea eraberritzeko eta handitzeko obra-lizentzia lortzeko egindako eskaeraren harira hasitako espedientea ikusita (LOB/2019/405).

Tokiko Gobernu Batzarrak 2019-11-12an hartutako 489. Erabakiaren bidez eman da lizentzia, Fernández Beldarrain, Muga Francisco eta Bergasa Balda arkitektoek idatzitako egikaritze-proiektuaren arabera, zeinak Euskal Herriko Arkitektoen

3.- INFORMACIÓN GENERAL ACERCA DE DISTINTOS ASUNTOS DEL ÁREA.

Iñigo Urkitza, como Responsable del Área de Planeamiento, Gestión y Disciplina Urbanísticas, quiere explicar las medidas que se han adoptado para favorecer la actividad hostelera en tiempos covid.

Así, da cuenta de la opción que se ha dado para que los locales que ejercen la actividad hostelera dentro de los grupos 3 y 4, puedan hacerlo como grupo 2 con el cumplimiento de los requisitos correspondientes.

Al tiempo, informa de la flexibilización que se ha hecho en materia de terrazas, para permitir las mismas a locales que las tenían impedidas por la concreta configuración de la acera, posibilitando su ubicación en espacios destinados a aparcamientos, con el límite temporal de diciembre 2021.

4.- RUEGOS Y PREGUNTAS

Escrito nº 21.975/2020 del Grupo Municipal Popular preguntando por la tala de dos palmeras centenarias en la comisaría de la Ertzaintza.

Iñigo Urkitza ofrece las explicaciones a la vista del expediente incoado con motivo de la solicitud que formula el Departamento de Seguridad del Gobierno Vasco para la obtención de licencia de obras para la reforma y ampliación de la Comisaría de la Ertzaintza de Getxo (LOB/2019/405).

La licencia se otorga por acuerdo nº 489 que adopta la Junta de Gobierno Local el 12.11.2019, conforme al proyecto de ejecución redactado por los Arquitectos Sres. Fernández Beldarrain, Muga Francisco y Bergasa Balda, con visado del Colegio Oficial

Elkargo Ofizialaren 2018-07-17ko ikus-onespena duen.

de Arquitectos Vasco-Navarro de fecha 17.07.2018.

Eraberritze- eta handitze-obrei buruzko proiektuaren eranskin bat jaso da espedientean, zeinak jarduketaren eraginpean dauden zuhaitz- eta zuhaixka-espezieen inbentarioa barne hartzen duen, bai eta horiek birlandatzeke, mozteko eta mantentzeko bideragarritasun-txosten tekniko bat ere.

Obra en el expediente un anexo al proyecto de obras de reforma y ampliación que incluye el inventario de las especies arbóreas y arbustivas existentes y afectadas por la actuación, junto con un informe técnico de viabilidad para su trasplante, tala y mantenimiento.

Inbentario horretan puntadun palmondo zorrotzak jaso dira eta, horiek birlandatzea erreza ez dela ikusita, palmondo horiek moztea aurreikusi da.

Dicho inventario, incluye las palmeras apuntadas y se prevé su tala ante la dificultad de su trasplante.

Aldi berean, Iñigo Urkitzak azaldu du indarrean dagoen HAPOak lurzatiaren barruan kokatutako lizar bat eta ezki bat babesten dituela. Horiei buruzko txosten tekniko bat dago, zeinak egiaztatzen duen haien egoera hain txarra dela (lehenengoa hilda dago eta bigarrenaren enborreko zati handi bat ustelduta dago) ezen irtenbide tekniko bakarra horiek moztea den, eror ez daitezen (bigarrena berehala eroriko da, ezegonkortasun-arrisku handiagoa baitu).

Al tiempo, Iñigo Urkitza explica que existen un fresno y un tilo protegidos en el vigente PGOU dentro de la parcela, respecto de los que existe un informe técnico acreditativo de que el estado que presentan es tan deficiente (el primero está muerto y el segundo con importantes pudriciones a lo largo de su tronco) que la única solución técnica posible es su tala para evitar su caída (más inminente para el segundo, con mayor peligro de inestabilidad).

Eduardo Andradek egoera hori deitoratu du, eta bere taldea zuhaitz babestuen mozketaren alde ez dagoela jasota gera dadin nahi du.

Eduardo Andrade se lamenta de esta situación y quiere que conste la protesta de su grupo ante la tala de árboles protegidos.

Popular Udal Taldearen 21.976/2020 idazkia; beraren bidez, Ertzaintzaren komisarian proiektuari buruz galdetu dute.

Escrito nº 21.976/2020 del Grupo Municipal Popular preguntando por el proyecto de la comisaría de la Ertzaintza.

Eduardo Andrade udal-bulegoetatik igaroko da, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak Getxoko ertzaintetxea eraberritzeko eta handitzeko obra-lizentzia lortzeko egindako eskaeraren harira hasitako espedientea ikusteko (LOB/2019/405).

Eduardo Andrade pasará por las oficinas municipales para ver el expediente incoado con motivo de la solicitud que formula el Departamento de Seguridad del Gobierno Vasco para la obtención de licencia de obras para la reforma y ampliación de la Comisaría de la Ertzaintza de Getxo (LOB/2019/405).

Popular Udal Taldearen 22.147/2020 idazkia; beraren bidez, Areetako hondartzaren itxierari buruz galdetu dute, ur beltzen isurketa bat dela eta.

Joseba Arregik eman ditu azalpenak, Ingurumeneko Hiri Zerbitzuen eta Ingurumen Kalitatearen zinegotzi arduraduna den aldetik.

Hala, adierazi du ez dagoela lotuta egon daitekeen isuririk. Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak, erakunde eskuduna den aldetik, analisiak egin ditu eta emaitza onak eskuratu dira. Hala ere, une jakin batzuetan gainazaleko aparrak ikusten dira, materia organikoaren ondoriozkoak izan daitezkeenak. Ez dago gainezkabiderik aparren kontuarekin erlaziona daitekeenik. Ur Partzuergoaren saretik gainezkabideak gertatzen direnean, euri-jasen ondorioz edo beste edozein arrazoi tarteko, eragindako udalerriei jakinarazten zaie, ezarritako protokoloari jarraikiz. Dena den, Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila hori guztia aztertzen ari da, eta etengabe ari gara sail horrekin harremanetan.

Popular Udal Taldearen 22.148/2020 idazkia; beraren bidez, Tanatorioari emandako lizentziari buruz azalpenak eskatu dute.

Iñigo Urkitzak alboko bizilagunekin izandako harremanen berri eman du. Horiek dokumentazioa aurkeztu dute.

Dokumentazio hori, jarduketaren sustatzaileek aurkeztu beharrekoarekin batera, aztertu egingo da erabakiak hartu ahal izateko.

Escrito nº 22.147/2020 del Grupo Municipal Popular preguntando por el cierre de la playa de Las Arenas con motivo de un vertido de aguas fecales.

Las explicaciones las ofrece Joseba Arregi, como Concejal Responsable de Servicios Urbanos Ambientales y Calidad Ambiental.

Así, señala que no se tiene constancia de vertido alguno que pueda relacionarse. Sanidad de Gobierno Vasco, como entidad competente, ha realizado sus analíticas y los resultados han sido buenos. No obstante se observa en momentos puntales unas espumillas superficiales que puede deberse a materia orgánica. No constan alivios que puedan relacionarse con el tema de las espumillas. Cuando se producen alivios por la red del Consorcio de Aguas derivados de lluvias intensas o por cualquier causa se comunican a los municipios afectados, siguiendo el protocolo establecido. No obstante se está analizando todo ello por parte de Sanidad del Gobierno Vasco con la que estamos en permanente contacto.

Escrito nº 22.148/2020 del Grupo Municipal Popular solicitando explicaciones sobre la licencia concedida al Tanatorio.

Iñigo Urkitza da cuenta de los contactos habidos con los vecinos inmediatos, que han aportado documentación.

Dicha documentación, junto con la que deben aportar los promotores de la actuación, será evaluada para la toma de las decisiones.

Bizilagunek udalarekin harremanetan jarraitzen dute eta espedienteak eskura daukate.

Popular Udal Taldearen 22.149/2020 idazkia; beraren bidez, Arkotxa kalean horma bat erortzeari buruz galdetu dute.

Eduardo Andradek adierazi du jaso zituztela alkatearen azalpenak.

Ibon Rodríguez harrিতuta dago asko luzatu delako lizentzia eskatu zenetik hori eman arteko denbora. Iñigo Urkitzak bajekin lotutako arazoak aipatu ditu.

Carolina Uribe jakin nahi du zein epetan amaituko den obra, nork egingo duen eta zer gertatuko den hormaren alboko pasabidearekin. Iñigo Urkitzak azaldu du Arkotxa kaleko 23, 25 eta 27. zenbakietako jabeen erkidegoak sustatu dituela lanak, eta berehala hasiko direla. Gainerako gaietarako espedientera jo behar da. Babesteko hesiak mantenduko dira.

Popular Udal Taldearen 22.150/2020 idazkia; ostalaritzarako lokalen kategoria aldatetari buruzkoa.

Eduardo Andradek puntu hori erantzundakotzat jo du.

Popular Udal Taldearen 22.151/2020 idazkia; beraren bidez, Cristobal Colón kaleko 2. zenbakari buruz aurkeztutako kexei buruz galdetu dute.

Azpiegitura, Obra eta Zerbitzuen Arloko zinegotzi gisa, Janire Ociok batzorde honen eskumeneko gaiak aipatu ditu.

Los vecinos siguen en contacto con el Ayuntamiento y tienen acceso al expediente.

Escrito nº 22.149/2020 del Grupo Municipal Popular preguntando sobre la caída de un muro en la calle Arkotxa.

Eduardo Andrade señala que ya recibieron las explicaciones de la Alcaldesa.

Ibon Rodríguez se sorprende de lo que se ha dilatado en el tiempo la concesión de la licencia desde que fuera instada la misma. Iñigo Urkitza se refiere a problemas de bajas.

Carolina Uribe quiere saber en qué plazo terminará la obra, quién va a ejecutarla y qué pasará con el paso adyacente al muro. Iñigo Urkitza explica que las obras las promueve la Comunidad de Propietarios de los nº 23, 25 y 27 de la calle Arkotxa y van a comenzar ya. Para el resto de las cuestiones debe remitirse al expediente. Se mantendrá un vallado de protección.

Escrito nº 22.150/2020 del Grupo Municipal Popular sobre cambio de categoría en los locales de hostelería.

Eduardo Andrade da por contestado este punto.

Escrito nº 22.151/2020 del Grupo Municipal Popular preguntando por las quejas presentadas en Cristobal Colón 2-5-7.

Janire Ocio, como Concejala Responsable del Área de Infraestructuras, Obras y Servicios y Medio Ambiente, se refiere a las cuestiones competencia de esta Comisión.

Hala, bizilagunek bidalitako kexen eta horien erantzunen berri eman du, gunerako aurreikusitako lanak azaldu ditu (espaloiak, irisgarritasuna, asfaltatzea...), horniketa enpresetara jo du linea elektrikoaren gaiari dagokionez eta azpimarratu du titulartasunak argitu behar direla lurzoruen eskuragarritasunaren araberako zenbait jarduketari buruzko erabakiak hartzeko.

Eduardo Andradek behin-behineko konponbide gisa proposatu du etxartean hesiak jartzea.

Janire Ociok erantzun du ukitutako gainerako arloekin hitz egingo duela har daitezkeen neurriak baloratzeko.

Popular Udal Taldearen 22.253/2020 idazkia; beraren bidez, Zubilletasen bidea ixteari buruzko informazioa eskatu dute.

Janire Ociok azaldu du ez dela aurkitu adierazitako gaiaren inguruko eskaerarik, eta, ondorioz, ezin izan dela jakin zein itxiturari buruzkoa den galdera.

Eduardo Andradek adierazi du behar bezala kokatzeko datuak ekarriko dituela, baina uste du udal teknikariek bisita egin behar izan zutela.

EH Bildu Taldearen 23.169/2020 idazkia, beraren bidez, ibilgailu elektrikoak kargatzeko puntuak; Martiturri estartako harraska; Alangobarri kalean dauden kontenedoreak eta umeentzako parkeen garbiketari buruz galdetu dute.

Auto elektrikoak kargatzeko puntuak Kirol Portuan:

Kontratazio, Ondare eta Etxebizitza Arloko zinegotzi arduraduna den

Así, da cuenta de las quejas remitidas por los vecinos y de su contestación, explica los trabajos previstos en la zona (aceras, accesibilidad, asfaltado...), remite a las empresas suministradoras para el tema del tendido eléctrico y apunta la necesidad de clarificar titularidades para decidir ciertas actuaciones en función de la disponibilidad de los suelos.

Eduardo Andrade propone, como solución provisional, que se valle el callejón.

Janire Ocio contesta que hablará con el resto de las Áreas afectadas para valorar las medidas que pueden ser adoptadas.

Escrito nº 22.253/2020 del Grupo Municipal Popular solicitando información sobre el cierre del camino en Zubilletas.

Janire Ocio explica que no ha sido localizada solicitud alguna acerca del tema apuntado, lo que ha imposibilitado conocer el cierre sobre el que se pregunta.

Eduardo Andrade señala que traerá datos para su correcta localización, aunque cree que debería haber sido girada visita por los técnicos municipales.

Escrito nº 23.169/2020 de EH Bildu, preguntando por puntos de carga para coches eléctricos; el lavadero de Estrada Martiturri; los contenedores de la calle Alangobarri; y la limpieza de los parques infantiles.

Puntos de carga para coches eléctricos en el Puerto Deportivo:

Alvaro González, Concejal Responsable del Área de

Álvaro Gonzálezek galderak erantzun ditu:

"6 galderetako bakoitzari emandako erantzunak alde batera utzi gabe, gogorarazi behar da kirol portuan ibilgailu elektrikoak kargatzeko postuak instalatzeko, abian jartzeko eta ekonomikoki ustiatzeko, Estatuko portu-legeriaren zehaztapenak bete behar direla, bai eta El Abra Getxo SA kirol-portua sozietateari emandako emakida-araubidea ere, eta, bereziki, Getxo sozietate ustiatzaileari emandako ustiapen-kontratu eskusiboa (azalera-eskubidea). Horrek eskubidea ematen dio Getxoko kirol portu osoan baliatzeko, ez soilik pantalanetan, baizik eta urbanizazio osoan, salbu eta Bilboko Portuko Agintaritzak berentzat gordetako azaleran (Algortako kontradikearen gunea).

Horregatik guztiagatik, eta Iberdrola enpresa hautatzeko prozedurari buruzko **lehenengo galderari** erantzunez, honako hau adierazi behar da:

- Iberdrola enpresaren eta sozietate ustiatzailearen arteko merkataritza akordio pribatua da, alderdien artean itunak egiteko askatasunak eta merkatu librearen arautua.

•
Udalaren inbertsioa eta Iberdrolarena zein izan den dioen **bigarren galderari** dagokionez:

- Udalak ez du euro bat ere inbertitu, ezta Getxo Kaia enpresak ere; izan ere, azken horrek merkataritza akordioa egin du, auto elektrikoaren erabiltzaile potentzialak erakartzeko elementu lehiakor gisa.
- Iberdrolak bere gain hartu ditu gastu guztiak, eta Getxo Kaia doan laga du bere aldi baterako

Contratación, Patrimonio y Vivienda, procede a contestar las cuestiones planteadas en los siguientes términos:

"Sin perjuicio de las respuestas a cada una de las 6 preguntas, se ha de recordar que la instalación, puesta en servicio y explotación económica de los puestos de recarga para vehículos eléctricos en el Puerto Deportivo está sujeta a las determinaciones de la legislación portuaria del Estado, al régimen concesional otorgado a la Sociedad Puerto Deportivo El Abra Getxo S.A. y muy especialmente por el contrato de explotación en exclusiva (derecho de superficie) otorgado a la Sociedad explotadora Getxo Kaia S.A. que le da derecho a su uso sobre la totalidad del puerto deportivo de Getxo, que no solo incluye los edificios y pantalanes, sino la totalidad de la urbanización, con excepción de la superficie reservada para sí por la Autoridad Portuaria de Bilbao (zona de contradique Algorta).

Por todo ello y dando respuesta a la **primera pregunta** sobre cuál ha sido el proceso que ha llevado a la elección de la empresa Iberdrola cabe indicar que:

- Se trata de un acuerdo comercial privado entre la empresa Iberdrola y la sociedad explotadora que se rige por la libertad de pacto y el libre mercado entre las partes.

En relación a la **segunda pregunta** sobre cuál ha sido inversión del Ayuntamiento y la de Iberdrola:

- El Ayuntamiento no ha invertido ningún euro, así como tampoco la empresa Getxo Kaia, ya que está última ha realizado un acuerdo comercial como un elemento competitivo de atracción a los potenciales usuarios de coche eléctrico.
- Iberdrola ha corrido con todos los gastos y Getxo Kaia cede

kontratuaren baitan espazio hori ekonomikoki ustiatzeko duen eskubidea.

Mantentze-lanen kostua zein izango den eta noren gain egongo den dioen **hirugarren galderari** dagokionez:

- Mantentze-lanen kostua Iberdrolaren kontura izango da oso-osorik, eta ez dugu zenbatekoaren berri, beren negozioaren parte da eta.

Laugarren galdera zen ea udalak baduen ibilgailu elektrikoak kargatzeko puntuen sarea zehazteko planik. Bada:

- Bat etorri Euskal Autonomia Erkidegoko jasangarritasun ekonomikoari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legearen 7. artikuluan ezarritakoarekin, egiturazko antolamendu urbanistikoa eta, hala badagokio, arauz ezarritako terminoetan, antolamendu xehatuko planak barne hartzen dituzten planak dira hiriguneetan erabilera publikoko kargatze-estazioak aurreikusi behar dituztenak, jasangarritasun energetikoari buruzko txostenen bitartez. Horren helburua izan behar da energia horniketa bermatzea ibilgailu elektrikoak eta erregai alternatiboak bidez funtzionatzen dutenen erabiltzaileei.
- Ondorioz, HAPOn berrikusketaren baitan zehaztuko dira espazio horiek.

Udalak energia berrerabilgarrien erabilera sustatzeko proiektuen garapena kooperatibekin aztertuko ote duen zioen **bosgarren galderak**. Hona erantzuna:

- Proiektuaren garapenari buruzko zehaztapenak eta energia berriztagarriak erabiltzea sustatzearekin lotutako zehaztapenak Euskal Autonomia

gratuitamente su derecho de explotación económica para dicho espacio dentro del marco temporal de su contrato.

En relación a la **tercera pregunta** sobre cuál va a ser el coste de mantenimiento y sobre quién va a recaer:

- El coste de manteniendo corre íntegramente a cargo de Iberdrola y se desconoce la cuantía por cuanto es parte de su negocio.

En relación a la **cuarta pregunta** sobre si el Ayuntamiento dispone de algún plan para la definición de la red de puntos de recarga de vehículos eléctricos:

- De acuerdo con lo establecido en el artículo 7 de la Ley 4/2019, de 21 de febrero, de sostenibilidad energética de la Comunidad Autónoma Vasca son los planes que incluyan la ordenación urbanística estructural y, en su caso y en los términos que se establezcan reglamentariamente, los planes de ordenación pormenorizada, los que a través de los informes de sostenibilidad energética deberán prever estaciones de recarga de uso público en los entornos urbanos, para garantizar el suministro de energía a las personas usuarias de vehículos eléctricos y propulsados por combustibles alternativos.
- En consecuencia es en el marco de la revisión del PGOU donde se definirán dichos espacios.

En relación a la **quinta pregunta** sobre si el Ayuntamiento analizará con las cooperativas el desarrollo de proyectos para la incentivación del uso de energías renovables:

- Las determinaciones sobre el desarrollo de proyectos y determinaciones vinculadas con la incentivación del uso de energías renovables se realizará en el

Erkidegoko jasangarritasun energetikoari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legean ezarritakoaren arabera egingo dira, eta Eusko Jaurlaritzako sektore organoak energia jasangarritasunaren arloko politikak definitzeko ezarritako irizpideei jarraikiz.

Kargatzeko puntu horien erabilerari buruzko **seigarren galderari** dagokionez:

- Kirol Portuko kargatze puntuak erabilera partikularrekoak dira, erabiltzaile mota guztiei zuzenduak, eta Iberdrola konpainiaren aplikazioaren bidez funtzionatzen dute”.

Janire Ociok aukera aprobetxatu du aipatzeko udalak, energia horniketaren kontratuaren bidez (%100eko jatorri berriztagarria bermatuta), aukera duela bide publikoan kargatzeko hiru puntu instalatzeko horniketaren kontratista adjudikaziodunarekin, hau da, Iberdrolarekin. Kargagailu horien kokapenari buruzko proposamenak aztertzen amaitzen ari dira. Gainera, Manuel Gainza funtzionamenduan jartzeaz bat beste zazpi karga-puntu gaituko dira.

Ibon Rodríguezek interesa erakutsi du udalak, kooperatibekin lankidetzan, energia berriztagarrien erabilera areagotzeko proiektuak garatzeko aukerarekiko.

Martiturri estartako garbitegia.

Alvaro Gonzálezek Galeako futbol zelaiaren parean kokatu du. Adierazi duenez, titulartasun pribatuko lurzatiaren gainean dagoen arren, ezin daiteke zehaztu ea elementua publikoa edo pribatua den. Gai hori argitu behar da, kontserbatzeko ardura jabeari dagokio eta.

marco de lo establecido en la Ley 4/2019, de 21 de febrero, de sostenibilidad energética de la Comunidad Autónoma Vasca y las directrices que establezca el órgano sectorial del Gobierno Vasco para la definición de las políticas en materia de sostenibilidad energéticas.

En relación a la **sexta pregunta** sobre cómo será el uso de estos puntos de recarga:

- Los puntos de recarga del Puerto Deportivo son de uso particular para todo tipo de usuarios a través de la aplicación de la compañía Iberdrola”.

Aprovecha la ocasión Janire Ocio para comentar que el Ayuntamiento, a través del contrato de suministro de energía (100% origen renovable garantizado), tiene la opción de instalar tres puntos de recarga en vía pública con el contratista adjudicatario del suministro, Iberdrola. Se están terminando de analizar las propuestas de ubicación de los citados cargadores. Aparte, con la entrada en funcionamiento de Manuel Gainza se habilitarán otros siete puestos de recarga.

Ibon Rodríguez se interesa por la posibilidad de que el Ayuntamiento desarrolle proyectos para intensificar la utilización de energías renovables en colaboración con cooperativas.

Lavadero de Estrada Martiturri:

Alvaro González lo ubica frente al Campo de Fútbol de La Galea y señala que, aunque se encuentra sobre parcela de titularidad privada, no puede determinarse si el elemento es público o privado. Hay que aclarar esta cuestión porque el deber de conservación corresponde a su propietario.

Ibon Rodríguezek errepikatu du elementua berreskuratzeko beharrezko kudeaketak egin behar direla.

Alangobarri kaleko edukiontziak:

Joseba Arregik deitoratu egin du egiaztatu gabeko baieztapenak egitea. Edukiontziak aurrez ezarritako maiztasunaz garbitzen dira, eta maiztasun hori puntualki jarraitzen da. Ez dago jasota gai horrekin lotutako gorabeherarik. Ez du baztertzen desagertzen ez den orbanen bat egoteko aukera, baina garbiketa egiten da.

Carolina Uribek jakin nahi du ea pandemiaren ondorioz garbiketaren maiztasuna aldatu den edo kontratuak moldatu diren.

Joseba Arregik adierazi du konfinamenduan zehar kaleak garbitzea ez zela horren beharrezkoa, gutxiago zikintzen zelako. Hortaz, desinfekzioan gehiago zentratu ziren, baina kontratuak moldatu behar izan gabe. Gaur egun egoera normaldu egin da. Eta ohiko lanak egiten dira, baina desinfektatzailearekin. Patioei dagokienez, txorrotaz garbitzen dira lurak nahiz jolaserako elementuak, eta horretarako soluzio desinfektatzaile bat erabiltzen da.

Udal eraikinei dagokienez, Iñigo Urkitzak adierazi du garbiketa sakondu egin dela eta kontratuak indartu direla.

Haur parkeen garbiketa:

Joseba Arregik azaldu du lurak kasu kasu beharrezko den maiztasunaz garbitzen direla, eta jolaserako elementuak astero garbitzen direla.

Ibon Rodriguez insiste en que se hagan las gestiones oportunas para la recuperación del elemento.

Los contenedores de la calle Alangobarri:

Joseba Arregi lamenta que se hagan afirmaciones que no están acreditadas. Los contenedores se limpian con una regularidad preestablecida que se sigue puntualmente. No existe constancia de ninguna incidencia sobre el asunto. No descarta que exista alguna mancha que no desaparece pero la limpieza se hace.

Carolina Uribe quiere saber si como consecuencia de la pandemia ha habido cambios de frecuencia en la limpieza o adaptación de los contratos.

Joseba Arregi señala que durante el confinamiento la limpieza de las calles no era tan necesaria porque no se ensuciaba tanto y se volcaron más en la desinfección, pero sin necesidad de modificar los contratos. A día de hoy se ha normalizado. Y se hacen los trabajos habituales, pero con desinfectante. En cuanto a los patios, se manguean tanto los suelos como los elementos de juego, utilizándose una solución desinfectante.

En lo que se refiere a los Edificios Municipales, Iñigo Urkitza señala que se ha intensificado la limpieza y reforzado los contratos.

Limpieza de los parques infantiles:

Joseba Arregi explica que los suelos se limpian con la frecuencia que se requiere en cada caso, mientras que los elementos de juego se limpian semanalmente.

Ibon Rodríguez iruditzen zaio asteroko maiztasuna urria dela, eta Joseba Arregik erantzun dio adituei kontsulta egingo diela.

EH Bildu Taldearen 23.176/2020 idazkia, beraren bidez, uraren araztailearen egoera; eskola publikoetako garbiketa; Ibarbengoako parkina; eta Ingurumen Aretoan jarri daitezken jardueri buruz galdetu dute.

Ur-araztegia:

Joseba Arregik adierazi du Partzuergoaren gainezkabideak ez daudela dokumentu bakar batean zerrendatuta; hortaz, bildu egin beharko lirateke, intereseko informazioa emateko.

Covid garaian ikastetxeentzako udal-espazioak:

Horiek helarazteko datuak eskatuko dira.

Ibarbengoako aparkalekua:

Janire Ociok adierazi du eskaera bat bidaliko zaiola Bizkaiko Garraio Partzuergoari, oinezkoen pasabidea ahalbidetzeko sarrera bat jar dezan eta, horrela, buelta osoa eman behar ez izateko.

Ingurumen gelaren erabilera posibleak.

Joseba Arregik esan du hori aztertzeke iradokizuna jaso dela.

EH Bildu Taldearen 23.184/2020 idazkia, beraren bidez, emantzipaziorako laguntzei buruz galdetu dute.

Ibon Rodríguez estima que la frecuencia semanal parece escasa, a lo que Joseba Arregi responde diciendo que hará la oportuna consulta con los expertos en la materia.

Escrito nº 23.176/2020 de EH Bildu, preguntando por la situación de la depuradora de agua; la limpieza en escuelas públicas; el parking de Ibarbengoa; y posibles usos en el Aula Medioambiental.

Depuradora de agua:

Joseba Arregi señala que los alivios del Consorcio no están relacionados en un único documento, sino que habría que recopilarlos para dar la información que se interesa.

Espacios municipales para centros docentes en tiempos covid:

Se solicitarán los datos para hacerlos llegar.

Parking de Ibarbengoa:

Janire Ocio señala que será dirigida una petición al Consorcio de Transportes de Bizkaia para que se dote de una entrada que permita el acceso peatonal sin tener que dar la vuelta.

Posibles usos en el Aula Medioambiental.

Joseba Arregi señala que se recoge la sugerencia para su análisis.

Escrito nº 23.184/2020 de EH Bildu, preguntando por las ayudas a la emancipación.

Álvaro Gonzálezek bizitzen ari garen egoera konplikatua aipatu du, eta aurrera eramateko esfortzuei berrekingo zaiela adierazi du.

Elkarrekin-Podemos Taldearen telematikoki 4.238/2020 zenbakiarekin errejistratutako idazkia; beraren bidez, Arkotza kaleko horma; Errotatxu Poligonoa; espazio publikoen garbiketa; HAPO eta Tanatorioari buruz galdetu dute (EE 23.201/2020).

Arkotxa kaleko horma:

Gai hori aztertu da dagoeneko.

Errotatxu industrialdea:

Iñigo Urkitzak azaldu du lanen egikaritzea aurrera doala horiek udalak jasotzeko. Horrek zehaztuko du Ekintza Puntualeko Brigaden pixkanakako sarrera, bidea garbitzeko ukitutako kontratuen bideragarritasuna nahiz aldaketak, berdegunea, espaloiak mantentzeko lanak eta erabiltzen ez diren edo arazoak dakartzaten espazioen optimizazioa, atzeko partea edo albokoa kasu (Cedemos).

Carolina Uribek nahi du horrekin lotutako gertaeren berri eman dadin batzorde honetan.

HAPO:

Iñigo Urkitzak azaldu du idazketa lanek aurrera jarraitzen dutela, antolamendurako proposamen bat izateko eta 2021ean hasieran onesteko.

Onespen hori baino lehen batzorde honetan hainbat bilera monografiko egingo dira.

Areetako beilatokia

Alvaro González se refiere a la complicada situación que vivimos y apunta que se reactivarán los esfuerzos por sacarlas adelante.

Escrito con nº de registro telemático 4.238/2020, de Elkarrekin-Podemos, preguntando por el muro de la calle Arkotxa, el Polígono Errotatxu, la limpieza de los espacios públicos, el PGOU y el Tanario de La Arenas (RE 23.201/2020).

Muro de la calle Arkotxa:

Este tema ya ha sido tratado.

Polígono Errotatxu:

Iñigo Urkitza explica que se avanza en la ejecución de los trabajos para la recepción de los mismos por el Ayuntamiento lo que determinará la entrada paulatina de brigada BAP vialidad y modificación de contratos afectados de limpieza viaria, zona verde, mantenimiento aceras, y ejecución de optimización de espacios en desuso y problemáticos como la trasera o lateral Cedemos.

Carolina Uribe quiere que se dé cuenta de lo que acontezca ante esta Comisión.

PGOU:

Iñigo Urkitza explica que se sigue con los trabajos de redacción, con idea de contar con una propuesta de ordenación para su aprobación inicial en el 2021.

Antes de dicha aprobación, se sucederán diferentes reuniones monográficas en esta Comisión.

Tanario de La Arenas:

Iñigo Urkitzak berriz ere aipatu ditu alboko bizilagunekin izandako kontaktuak eta aurkeztutako dokumentuak. Horiek aurrerago erabakiak hartzeko balio izango omen dute.

Saioa amaitutzat jo aurretik, hauek hitz egin dute:

- Ibon Rodríguezek zehaztasun handiagoa nahi luke gai zerrenda idazteko orduan, zehazki "Arloko hainbat gairi buruzko informazio orokorra" atalari dagokionez.

.- Natalia Aranduyk komertzioen sustapenari buruz galdetu du, saldoen merkatua bertan behera gelditu dela eta. Horren jakinarazpena non argitaratuko den jakin nahi du. Iñigo Urkitzak dio jakin bezain laster emango duela horren berri.

- Itxaso Masedak IBAR NAGUSIEN ETXEA ELKARTEAK aurkeztutako idatzi bat aipatu du, Lope de Vega kaleko 12. zenbakiko higiezinako zenbait urritasuni buruzkoa dena eta LURRALDE BATZORDEARI zuzenduta dagoena.

Janire Ociok adierazi du aipatutako idazkia berreskuratuko dela, jaso ez delako.

Beste gairik ez dagoenez, lehendakariak bilera 9:47an bukatutzat eman du.

Iñigo Urkitza vuelve a referirse a los contactos habidos con los vecinos inmediatos y a los documentos que han aportado y que servirán para la toma de decisiones.

Antes de dar por finalizada la sesión, se suceden las siguientes intervenciones:

.- Ibon Rodríguez quiere mayor precisión en la redacción del Orden del Día, en lo que tiene que ver con el apartado de "Información general acerca de distintos asuntos del Área".

.- Natalia Aranduy se interesa por la promoción a los comercios, consecuencia de la suspensión del mercado de saldos. Quiere saber dónde se va a anunciar. Iñigo Urkitza dice que lo comunicará cuando se sepa.

.- Itxaso Maseda se refiere a un escrito presentado por IBAR NAGUSIEN ETXEA ELKARTEA, acerca de ciertas deficiencias en el inmueble del nº 12 de la calle Lope de Vega y dirigido a la COMISIÓN DE TERRITORIO.

Janire Ocio señala que se recuperará el citado escrito porque no se ha recibido.

Sin más asuntos que tratar y siendo las 9:47 horas, la Presidenta da por finalizada la sesión.